

# KOSTUEN EGITURA

Kostuak, edozein proiektu aurrera eramanean nahi denetan topatuko ditugu, eta ezinbestekoa da enpresa batek kostu hоек ordaindu ahal izateko egitasmo bat edukitzea martxan jartzeko prest. Hau egin ahal izateko, lehendabizi kostuak identifikatu behar dira: finkoak, aldagarriak, zuzenak eta zeharkakoak, eta gero bakoitza aurre egiteko plangintza bat burutu beharko da.

Hasteko, kostu finkoak, enpresaren ekoizpen kantitatearekin zerikusia ez duten kostu totalen zati bat dira, ekoizpena aldatuta ere beti berdin mantenduko direnak. Hau, lantegiko alokairua izan daiteke adibidez. Argi dago gure langileak lan espazio bat beharko dutela, beraz, lantegi bat alokatzea beharrezkoa da. Honen ordainketa, guztiz gure kontukoa izango da, horregatik, hasieran, irabazirik ez ditugunean, gure poltsikoetatik hasi beharko gara ordaintzen. Lantegia- bezeroekin erlazio zuzenik ez dugunez- ez du zergatik Donostiako zentroan egon beharrik, Ibaeta auzotik gertuko espazio bati bota genion begirada azkar bat eta hilabeteko prezioa lau sozioren artean ordaintzeko modukoa da. Behin, irabaziaz edukitzen hasten garenean, hauen zati bat (kalkulatu beharrekoa) lantegiaren alokairua ordaintzera zuzenduko dugu.

Honetaz gain, enpresa martxan jarri ondoren kontratatuko ditugun langileen (ekipo teknikoa eta bezeroen arreta) soldatak ordaintzea beste kostu finko bat izango da, hau ordea, zuzena da (enpresaren jardura bati zuzenean esleitzen zaion kostua). Baliteke, hainbat arrazoiren gatik, langile bat edo besteren soldatan igoera bat egotea, baina hala ere, hau kostu finko zuzen bat kontsideratu dugu. Honen ordainketa, alokairuarena bezela, irabazien zati batetik egingo dugu.

Kostu aldakorak, ekoizpenaren arabera aldatzen direnak dira, beraz, guk aparkaleku zerbitzu bat eskaintzen dugunez ez dugu kostu aldakor handirik edukiko. Egia da ordea, kotxeetan instalatu nahi ditugun VIA T moduko aparato txikiak (VIA T- a bezela funtzionatuko dutenak, kotxeen aparkalekuko piboteetara gerturatzean) ekoiztuko ditugula, eta geroz eta bezero gehiago eduki, ekoizpena geroz eta handiagoa izango da, beraz, kostu aldakor bezela identifikatu daiteke. Ekoizpen hau, 2 zatitan ordaindu nahi dugu, bat gure irabazietatik eta bestea gure akzionista handienaren eskutik, udaletxea (akordio batera iritsi beharko gara lehendabizi). Honetaz gain, alokairuaren argindarra esaterako kostu aldakorra ere kontsideratu dugu, hasieran gure eskutik eta gero irabaziekin ordainduko duguna.

Beste kostu finko bat, aparkalekuetan instalatu nahi ditugun: pibote, sentsoak, plaka eta motoen aparkalekuen marren margotzea dira. Huk behin ordaindu beharko ditugu instalazio eta diseñu enpresari, baina, gero noizbehinka mantenimendu arazoak ere suertatuko dira. Hau dena, udaletxearen esku egongo da.